

Auditz-Akular eztabaidagai auzoan

Azkenaldian, Auditz Akularri buruzko ika-mika ahaztu samar dagoela dirudi. Auzoan, aldiz, gaiak pil-pilean jarraitzen du. Hilaren 7an, 8an eta 9an, Auzolan koordinakundeak gaiari buruz antolatutako jardunaldietan, mota guztietako iritzia entzuteko aukera izan genuen.

Sara Soria

Hilaren 7an PSE-EE, EA-EAJ, Batasuna eta IU/EB alderdi politikoetako ordezkariak beren jarrera azaldu zuten mahai inguruan. Hurrengo egunean, berriz, mahai ingurua gizarte mugimenduek egin zuten: Auzolanek eta Altza XXI herri ekimenak. Plataforma Pro Viviendas VPO elkar-teak ez zuten ihardunaldiotan parte hartu nahi izan, beren hitzetan, "gure jarrera nahikoa zabaldu delako hedabideetan". Hilaren 9an, azkenik, Hans Harms soziologoak garapen jasagarriari eta herritarren partaidetzari buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Alderdi politikoetako ordezkariak babes ofizialeko etxebizitzaren alde zeudela nabarmendu zuten. Bestalde,



guztiak, PSE-EE izan ezik, 95eko Plan Orokorra aurrikusitako 800 etxebizitza egin behar direla adierazi zuten. Hiru mila etxebizitza egiteak, aldiz, berez masifikatuta dagoen inguru honen arazoa areagotuko duela esan zuten EA-EAJ, EB eta Batasunako kideek. PSE-EEren hitzetan, ordea, ez da egia lehen aipatutako alderdiak babes ofizialeko etxebizitzaren alde daudenik, eta ezetzaren frontea osatu dutela argudiatu zuen. Era berean, Auditz Akularrek etxebizitzaren arazoa konponduko duela adierazi zuen PSE-EEk.

Informazio falta

Gizarte mugimenduek, bestalde, egitasmoari buruz informazio falta dagoela salatu zuten. "Informazio falta dago eta beraz, propaganda helarazten di-

gute", adierazi zuen Altza XXIeko bozeramaileak. Hala-ber, proiektuak Altza duinduko duela esan ohi den arren, eraikitzaileei baino ez diela on egingo esan zuen Altza XXIeko kideak: "Donostia oso hiri garestia da, eta Udalak periferiako baliabideak usiatzen ditu Erdialdeko proiektuak finantziatzeko. Ez dugu merezi bigarren mailako hiritarrak izatea".

Auzolan koordinakundeak, bere aldetik, auzoaren lehen-tasunei buruz jardun zuen. "Lehentasuna Altzaren behar-asetzea da: zerbitzu eta aparkaleku falta, etxeak ber-ritzea, oztopo arkitektonikoak ezabatzea ... Auzo berri-arekin ez dira arazook konponduko. Bestalde, proiektuarekin, Altzaren nortasun historikoa zapaltzeko arriskua da-

Gizarte mugimenduek informazio eza salatu dute

go. Horrexegatik, ezinbestekoa da lerketa sakona egitea eta gizarte mugimenduekin adostasuna bilatzea ezer erabaki aurretik".

Herri partaidetza

Hans Harms soziologoak demokrazia krisian dagoela adierazi zuen hilaren 9an. Soziologoaren hitzetan, "solik lau urtean behin aukeratu ohi ditugu gure ordezkariak, eta politikariengan ez dugu konfiantzarik".

Ildo horretatik, erabakiak hartzerakoan, herritarren partaidetza garrantzitsutzat jo zuen Harmsek. Honelako prozesuetan populazioaren lagina hartu ohi da, eta aukeratutakoek bilerak izaten dituzte adituekin eta auzian zeresana duten taldeekin. Ondoren, proposamenak mahaigaineratu ohi dira. "Modu horretan partaidetza, aniztasuna eta neutraltasuna ziurtatu ohi dira", azaldu zuen Harmsek. Partaidetza prozesua abian da dagoeneko Parte Zaharrean, ostalarien eta bizilagunen arteko auzia dela eta. Auditz Akularreko auzian erabiltzea ere irtenbide bat izan liteke.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza

obra social